

Zirkuitulaburrak

Kontraesan handiekin bizi dut eskuartearen darabilgun gaia. Nago, beltza ote den zuria. Arraina, haragi. Zer den literatura eta zer ez den literatura, eztabaida horrexek arduratzen gaitu azken aste hauetan. Desio dut gure irakurleak bat etortzea gaiarekin eta eztabaidarekin.

Literaturan, zer den tradizioa, edo zer bihurtzen dugun tradizio. Eta nola bihurtzen dugun hau, hura ala bestea tradizio. Zergatik den eredugarria Axular, edo zergatik ez zukeen izan behar... Azken finean, *literatura-kanona* zertan datzan, kanon hori norantz doan, kanon delako hori nora eraman gura dugun. Horretaz guztiaz dihardugu.

Lagunak, erreparo pixka bat ematen dit kontuak, batez ere kanon hitzak berak. Berezi, kanonaren esku etorri ohi den itzalak. Oro har, hozkia ematen dit kanonak; eta, literatura, ardura berezia.

Arte Ederretako literatura klasikoaren baitan, besteak beste, kanona da giza gorputzaren edertasuna ezartzen duen eredu. Joskintzan, hogeita hamazortziko izaria da modernitatearen kanonak utzi diguna. Kristau Elizak eta, hedaduraz, edozein erlijio sakratutzat hartzen dituzten liburuen zerrenda ere bada kanona.

Araua da kanona. Legea. Araudiari deitzea kanon da, esakune latzari zelofanezko azala jartzeari. Zeren, argi esanda, ezer izatekotan, *eredua* baita kanona. Eta, imitazioa du helburu ereduak. Eredua ezpatak nola, ertz zorrotza du kanonak. Giharrak apartatzera hel daiteke.

* * *

Edozein gairen aurrean, ortodoxiaren eta heterodoxiaren muga dantzarietan euskaldunek erakutsi ohi dituzten grina sakratuak ezagututa, hozkamina ematen dit kanonak. Nahikoa probatuta baitago lege, araudi eta kanon estuetatik euskal komunitatea.

Esaterako, hirurogeita hamar eta laurogeitako urteetan, zenbait euskara-



J. I. Basterritz

O. Lasagave

A. Palatagi

irakasle dominikoren eskuetan, ongi asko erakutsi zigun euskara kanonikoak euskararik ez genekielako. Delako maixu haien ustez, dena esaten genuen gaizki. Etxeko euskarak ez zuen piperrik ere balio. Hura trauma eta ezinerramana.

Noski, ez zuen kanonak berak kulpak, hizkuntzaren inkisidore haiek baizik, itzal beltzak. Ziotenez, euskara salbatu-

ko bazen, estandar lakarra behar genuen... Granitoko estandar salbatzaile hura fintzen ari gara harrezkero. Marka da gurea.

Literaturarekin, berdin egin behar al dugu orain? Hogeita hamazortziko izarian sartu behar al dute euskal idazleek? Horrela bada, lehenbailehen sortu beharko da *Letra jasoen inkisidore-eskola*. Baina, bide batez, eros dezagun eskuharria, esmerilez leuntzeko bihar gaurko eredu, granittoa nahiz arbela.

Literaturari jostun zorrotzak jartzea artzain, sotana estuegiekin ibiltzera derrigor dezake artalde: idazlea nola, irakurlea hala. Eta azkenean, inork ezer idatzi ezta irakurri ere.

* * *

Uztaileko lehen egun hauetan, Sanfermine-tako txurroen usain gozotan, pertinentea da literaturaz hitz egitea. Izan ere, euskaldunak irakurri, hala dio inkestetan, udan irakurtzen du, *denbora* duenean. Euskaldunak erosi, Gabon zurietan erosten du Durangon eta, irakurri, udamintetan irakurtzen omen du. Bratislavan, Belaguan edo Benidormen.

Inkesta bat egingo al dugu? Jakiteko nork zer irakurriko duen uda-partean...

Politikoki polita ez den proposamen bat egiten utziko al didazue? Hara: udan, irakur dezagun zerbait *desberdina*, *arina*. Kanon ortodoxoetan sartzen ez dena. Heterodoxia da uda, ezer izatekotan. Literatura bezala.

Gizatiarra izango bada, baliagarri eta atsegingarri, zirkuitulaburraren eztanda behar du kanon lakarrak. Baita literaturan ere. Solemnegia da-eta ortodoxia. ■

Udan, irakur dezagun zerbait *desberdina*, *arina*.

Kanon ortodoxoetan sartzen ez dena. Heterodoxia da uda, ezer izatekotan. Literatura bezala